

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## 2015ean BPGrekiko zorra Nafarroan igo da gutxien, Galiziarekin batera

*Foru Komunitateko 2015eko Ekonomiaren Urtekaria aurkeztu da gaur goizean, eta datu makroekonomiko nagusiak jasotzen dira bertan*

Ostirala, 2016.eko urriak 7

2015ean BPGrekiko zorra Nafarroan igo da gutxien, Galiziarekin batera. Zehazki, % 0,1 igo zen, eta estatuko batez bestekoa, berriz, % 1,5; zorpetze-maila, berriz, % 18,2 an geratu da, estatuko batez bestekotik sei puntu azpitik (% 24,2).

Horrenbestez, duela bi urte hasitako zorpetze-mailaren moderazio-joerari eusten zaio.

Abenduaren 31n, Nafarroako zorra 3.221,0 milioi zen.

Hala jasotzen da Garapen Ekonomikorako Departamentuak egin duen "[2015eko Nafarroako Ekonomiaren Urtekari](#)"-an; urtekari hori gaur eguerdian aurkeztu da "Garapen Ekonomikoko ostiralak" zikloaren esparruan eta, bertan, Foru Komunitateko egungo egoera eta ikuspegi ekonomikoak aztertu dira.

Urtekariak, nazioarteko eta estatuko testuinguruari erreferentzia labur bat egin ondoren, eskualdeko ekonomiaren makromagnitude nagusiak erreparatzen ditu: bere esparru produktiboak eta enplegunitxoak, finantzaketa, sektore publikoa, prezioak eta kostuak, enpresa-sarea eta eskualdeko garapena.

Txostenak agerian uzten duenez, 2015ean, Nafarroako ekonomiak aurrera egiteko bere erritmoa bizkortu zuen BPG % 2,9 handituz, nahiz eta portzentajea estatuko batez bestekoa baino pixka bat txikiagoa izan (% 3,2). Kontsumo pribatua, eskaeraren ikuspegi batetik, eta zerbitzuak, eskaintzaren ikuspegi batetik, bultzada horren eragile nagusiak izan ziren, ondorengo faktoreen laguntzarekin: lan-merkatua hobetzea, zerga-doikuntza txikiagoa, finantzaketa-kostuak murriztea eta lehengaien prezioa murriztea. Hori guztia honako honetan islatzen da: barne-eskaeraren hazkundera % 2,7 izan zela, kanpo-eskaerarena, berriz, % 0,2ren erantzule baino ez zela izan.

### 6.500 enplegu gehiago

Iragan ekitalditik ere 6.500 enplegu sortu izana nabarmendu behar



Gaur goizean aurkeztu da 2015eko Nafarroako Ekonomiaren Urtekaria.

da. Jardueren arabera, manufakturetan, osasun eta gizarteko arloetan eta merkataritzan daude afiliazio gehien. Balantzaren beste aldean, biztanleria aktiboan izandako atzerakada kezkarria da, zikloaren hobekuntzari ez baitio erantzuten. Bestalde, laneko prezio eta kostuetan izandako igoera arina izan zen eta, horri esker, lurraldeak kanpoan duen lehiakortasunari eutsi ahal izan zitzaion.

Azkenik, dokumentuak azpimarratzen du interes-tasak minimoetara jaisteak inbertsiorako beste aukera batzuek gordailuekiko bidea irabaztea ekarri zuela, aurrezteko tresna nagusia dena; nolana ere, kreditua berriz indartzeko ez zuen balio izan, eta haren bolumen guztiak atzera egiten jarraitu zuen iaz.